

PROYECTO DE NORMA FORAL DE ADAPTACIÓN DEL SISTEMA TRIBUTARIO DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA A LA LEY 5/2015, DE 25 DE JUNIO, DE DERECHO CIVIL VASCO.

La nueva Ley 2/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, que está en vigor desde el día 3 de octubre de 2015, es aplicable a toda la ciudadanía de la Comunidad Autónoma del País Vasco e introduce importantes novedades en materia sucesoria.

Esta ley se aprueba al amparo de lo dispuesto en el artículo 149.1.8º de la Constitución Española y de su Disposición Adicional Primera, que confirió competencias a las comunidades autónomas en las que perdura un sistema civil foral o especial propio para conservarlo, modificarlo y desarrollarlo allí donde exista, y que declara el respeto a esa normativa foral para la determinación de sus propias fuentes de derecho, y en el apartado 5 del artículo 10 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que establece su competencia exclusiva para la conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil Foral y especial, escrito o consuetudinario propio de los Territorios Históricos que integran el País Vasco y la fijación del ámbito territorial de su vigencia.

La nueva ley que tiene su antecedente más inmediato en la Ley 3/1992, de 1 de julio, de Derecho Civil Foral del País Vasco, contiene una verdadera reformulación del Derecho Civil aplicable en la Comunidad Autónoma Vasca, dado que establece por primera vez en su historia una normativa jurídica civil común aplicable a todos aquellos y aquellas que tengan vecindad civil vasca, sin perjuicio de las especialidades civiles de cada territorio, que serán aplicables a quienes tengan vecindad local en ese territorio. Por lo que al Territorio Histórico de Bizkaia se refiere, la Ley 5/2015 no supone un cambio radical con respecto a la regulación anterior ya que en la Tierra Llana de Bizkaia, se mantienen las normas sobre troncaldad de los bienes inmuebles y el régimen económico matrimonial de comunicación foral de los bienes, que será el régimen aplicable a los cónyuges en defecto de pacto, pero se extiende la aplicación de una serie de instituciones hasta ahora reservadas al territorio aforado o tierra llana para todas y todos los residentes en Bizkaia, como son la posibilidad de nombrar comisario para designar sucesor, el testamento mancomunado o por hermandad o, los pactos sucesorios con eficacia de presente o posmorten.

En relación con el régimen fiscal ya en el año 2002 en el Territorio Histórico de Bizkaia se aprobó la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco, que introdujo las modificaciones necesarias para adaptar el sistema tributario a las peculiaridades propias del Derecho Civil Foral del País Vasco, en aras a garantizar su uso y consolidación.

Del mismo modo y teniendo en cuenta que la intención de las instituciones de nuestro Territorio Histórico ha sido siempre la de intentar fomentar la consolidación de los derechos históricos del mismo, se hace necesario ahora también dar cabida desde el punto de vista normativo tributario a esta nueva regulación del derecho civil vasco.

La presente Norma Foral introduce modificaciones en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en el Impuesto sobre el Patrimonio, en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y en la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco, y consta de 6 artículos que comprenden las modificaciones de las Normas Forales reguladoras de los impuestos mencionados, una disposición derogatoria y una disposición final que establece la entrada en vigor de esta Norma Foral.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-SISTEMA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO EKAINAREN 25EKO 5/2015 LEGEARI EGOKITZEN DION FORU ARAUAREN PROIEKTUA

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 2/2015 Lege berria 2015eko urriaren 3az geroztik dago indarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei aplikatu behar zaie. Legeak garrantzi handiko berrikuntzak barne hartzen ditu oinordetzaren alorrean.

Lege hori Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikuluan eta Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren babespean onetsi zen, zeinak eskumenak ematen dizkien foru sistema zibil edo berezi bat duten autonomia erkidegoei sistema hori mantendu, aldatu eta garatzeko; halaber, zuzenbide-iturri propioak zehazteko foru araudi horrekiko errespetua aitortzen du. Horrez gain, Legea Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluan 5. idatz-zatiaren babespean onetsi da, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntza beregaina ezartzen duen, honetara zuzendua: Euskal Herria osatzen duten herrialde historikoen zuzenbide zibil foral eta berezi idatziaren nahiz ohiturazkoaren kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.

Lege berri honen aurrekaria Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren uztailaren 1eko 3/1992 Legea da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko Zuzenbide Zibilaren birformulazioa barne hartzen da; izan ere, historian lehenengo aldiz ezartzen du euskal auzotasun zibila duten guztiei aplikatu beharreko araudi juridiko zibil eta komun bat, lurralde bakoitzaren berezitasun zibilei ezertan eragin gabe, zeinak lurralde horretan tokiko auzotasuna dutenei aplikatu beharko zaizkien. Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez, 5/2015 Legeak ez dakar erabateko aldaketarik aurrekoaren erregulazioari dagokionez; izan ere, Bizkaiko Lur Luan ondasun higiezinaren tronkalekotasunari buruzko arauak mantentzen dira, bai eta ondasunen foru komunikazioaren ezkontzako partaidetzako araubidea ere, itunik ezean ezkontideei aplikatuko zaien araubidea dena; hala ere, orain arte foru-lurraldearentzat edo lur lauarentzat gordeta egon diren erakunde jakin batzuen aplikazioa zabaldu egiten da Bizkaiko herritar guztientzat, besteak beste ondorengoa hautatzeko komisarioa izendatzeko aukera, testamentu mankomunatu edo ermandadeko testamentua, eta posmorten edo oraingo eraginkortasuneko oinordetza-itunak.

Zerga-araubideari dagokionez, 2002. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu zuen urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoan. Horren bitartez, beharrezko aldaketak barne hartu ziren Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzeko, beraren erabilera eta finkatzea bermaturik egon zitezen.

Era berean, eta kontuan hartuta gure Lurralde Historikoko erakundeen asmoa beti izan dela Lurralde Historikoaren eskubide historikoak finkatzen saiatzea, beharrezkoa da euskal zuzenbide zibil honen arauketa berri hau zerga-araubidearen ikuspuntutik kontuan hartzea.

Foru Arau honek berrikuntzak dakartza oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, ondarearen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu zuen urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauan. Foru araua honela osatuta dago: aipatutako zergak arautzen dituzten foru arauen aldaketak barne hartzen dituzten sei artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat, foru araua indarrean jartzen duena.

En referencia al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, en el respeto a la esencia de la foralidad, por una parte, se han regulado los efectos tributarios de la aplicación de algunas nuevas instituciones contenidas en la Ley 5/2015 que a continuación se detallan y, por otra, se han introducido las actualizaciones pertinentes derivadas de la nueva regulación.

Así, se establece, entre otros, el tratamiento fiscal de los pactos sucesorios de renuncia a los derechos sucesorios de una herencia o de parte de ella, en vida del causante, de las adquisiciones de bienes y derechos como consecuencia de los pactos derivados de las disposiciones de los derechos sucesorios pertenecientes a la herencia de un tercero con el consentimiento de este y de la disposición a título gratuito de los derechos sucesorios del instituido en vida del instituyente, a favor de hijos e hijas o descendientes. Además, se refuerzan las obligaciones de suministro de información para los supuestos de actos de disposición del comisario cónyuge viudo o viuda o miembro sobreviviente de la pareja de hecho de bienes y derechos de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio, al objeto de atender a las obligaciones, cargas y deudas de la herencia, o cuando lo juzgue oportuno para sustituirlos por otros de acuerdo con lo previsto en el artículo 43 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

En relación a las modificaciones que afectan al régimen especial de tributación de las herencias pendientes de ejercicio del poder testatorio y consolidando el tratamiento tributario respetuoso con la singularidad jurídica de esta institución, que fue introducido en el sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia, mediante la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco, destaca por su relevancia la referente a la tributación de las transmisiones derivadas de los actos de disposición del comisario cónyuge viudo o viuda o miembro sobreviviente de la pareja de hecho de los bienes y derechos de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio, siempre que dichas transmisiones no impliquen el devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, tanto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como en el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Dicha modificación establece la atribución a la propia herencia pendiente del poder testatorio de la tributación en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de las ganancias y pérdidas, así como de los rendimientos de capital mobiliario, que deriven de la transmisión de elementos patrimoniales como consecuencia de los actos de disposición mencionados en el párrafo anterior, estableciéndose algunos supuestos de ganancias exentas, entre las que destacan, las generadas por la transmisión de la vivienda habitual.

En relación con el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, se regula la tributación de los incrementos derivados de la transmisión de terrenos, considerando en estos supuestos sujeto pasivo a la propia herencia y estableciendo reglas especiales para el cálculo del impuesto.

Finalmente y en lo que se refiere al resto de impuestos, que la presente Norma Foral modifica, las novedades introducidas resultan ser de carácter técnico con la finalidad de mejorar la comprensión de algunos preceptos o meras adaptaciones de referencias y terminología a la nueva Ley 5/2015 de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

Artículo 1. Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones:

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari dagokionez, foraltasunaren esentziaren errespetuan, alde batetik, jarraian zehazten diren 5/2015 Legean barne hartutako erakunde berri batzuen aplikazioaren zerga-ondorioak arautu dira eta, bestetik, araudi berriaren ondoriozko eguneraketa egokiak gehitu dira.

Hala, besteak beste, honako hauen tratamendu fiskala ezarri da: jarauntsi oso baten edo zati baten gaineko oinordetza-eskubideei uko egiteko ituna, jarauntsi horren kausatzailea bizirik dagoen bitartean; hirugarren baten jarauntsiaren gaineko oinordetza-eskubideak, betiere hirugarren horren adostasunarekin, xedatzearen ondoriozko eskubide eta ondasunen eskuratzeko, eta izendatzailea bizirik dagoela izendatutakoaren oinordetza-eskubideak doan xedatzen direneko kasua. Halaber, informazioa emateko betebeharrak sendotu egiten dira kasu hauetan: testamentu-ahalorea noiz baliatu zain dauden jarauntsiaren ondasun eta eskubideen komisario den ezkontide alargunaren xedapen-egintzak, jarauntsiaren betebeharrei, kargei eta zorrei erantzuna emate aldera, edo egokitzen jotzen denean beste batzuegatik ordezkatzeko, Euskal Zuzenbide Zibilaren ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Testamentu-ahalorea noiz baliatuko zain dauden jarauntsiak zergapetzeko araubide bereziari eragiten dioten aldaketei dagokionez, eta erakunde honen singularitasun juridikoarekiko errespetutsua den zerga-tratamendua finkatuz, hain zuzen ere Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu zuen urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren bidez barne hartu zena Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sisteman, testamentu-ahalorea noiz baliatu zain dagoen jarauntsiaren ondasun eta eskubideen komisario den ezkontide alargunaren xedapen-egintzen tributazioari dagokion aldaketa nabarmendu beharra dago, daukan garrantziagatik, betiere, eskualdaketa horiek ez badakarte Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketan zein hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan.

Aldaketa horrek irabazien eta galerengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan duen zergapetzea ezartzen dio testamentu-ahalorea noiz baliatuko zain dagoen jarauntsiari berari, bai eta kapital higigarrien etekinei dagokiena ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren xedapen-egintzen ondorioz sorpetzen diren ondare elementuen eskualdaketaen ondoriozkoak, eta salbuetsitako irabazien kasu batzuk ezartzen ditu; horien artean nabarmentzekoak dira ohiko etxebizitzaren eskualdaketaen ondoriozkoak.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez, lursailen eskualdaketaen ondoriozko gehikuntzen tributazioa arautzen da; kasu horietan jarauntsia bera subjektu pasibotzat jotzen da eta zerga kalkulatzeko arau bereziak ezartzen dira.

Azkenik, Foru Arau honek aldatzen dituen gainerako zergei dagokionez, barne hartutako berrikuntzek izaera teknikoa dute, manu batzuen ulergarritasuna hobetze aldera, edo Euskal Zuzenbide Zibilaren ekainaren 25eko 5/2015 Lege berriko erreferentzien eta terminologiaren aldaketa hutsak dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetz, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

1. artikulua. 4/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa.

Honako aldaketa hauek egiten dira Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauan:

Uno. Se introduce una nueva letra c) a continuación de la letra b) en el artículo 5 y las actuales c), d) y e) pasan a denominarse d), e) y f) respectivamente, con el siguiente contenido:

"c) Los pactos sucesorios de renuncia regulados en el primer inciso del apartado 2 del artículo 100 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

No obstante, la adquisición de bienes y derechos por el renunciante como consecuencia de un pacto de renuncia a parte de los derechos sucesorios solamente tendrá el carácter de título sucesorio cuando la atribución de los bienes y derechos sea parte de una disposición más amplia en la que, al menos debe concurrir otro elemento vinculado con la designación hereditaria en un instrumento paccionado respecto a otros elementos patrimoniales diferentes. En otro caso, tendrá el carácter de negocio jurídico gratuito e intervivos.

En los supuestos de pactos sucesorios de renuncia a la totalidad de los derechos sucesorios, las adquisiciones de bienes y derechos por el renunciante con posterioridad al fallecimiento del instituyente tendrán la consideración de negocios jurídicos gratuitos e intervivos de acuerdo con lo establecido en el artículo 6 siguiente, sin perjuicio de la tributación que corresponda a los sucesores.

Dos. Se introduce una nueva letra f) en el artículo 6, con el siguiente contenido:

"f) La adquisición de bienes y derechos por el renunciante como consecuencia de la disposición de los derechos sucesorios pertenecientes a la herencia de un tercero, de acuerdo con lo establecido en el segundo inciso del apartado 2 del artículo 100 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco."

Tres. Se da nueva redacción al tercer párrafo del apartado 1 del artículo 17, que queda redactado en los siguientes términos:

"En el supuesto de pactos sucesorios con eficacia de presente y de pactos sucesorios de renuncia definidos en el artículo 5 de esta Norma Foral, se devengará el impuesto en vida del instituyente, cuando tenga lugar la transmisión."

Cuatro. Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 17, que queda redactado en los siguientes términos:

"2. En las adquisiciones lucrativas *inter vivos* el impuesto se devengará el día en que se cause o celebre el contrato.

En las adquisiciones de bienes y derechos que tengan la consideración de negocios jurídicos *inter vivos* de acuerdo con las salvedades establecidas en el artículo 5 y lo dispuesto en la letra f) del artículo 6 de esta Norma Foral, el impuesto se devengará el día en que tenga lugar la transmisión."

Cinco. Se añade un nuevo apartado 3 en el artículo 17, renumerándose los actuales apartados 3 y 4 como apartados 4 y 5, con el siguiente contenido:

"3. En la disposición a título gratuito, por actos *inter vivos* o *mortis causa*, de los derechos sucesorios del instituido en vida del instituyente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 106 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, el impuesto no se devengará hasta el día del fallecimiento del instituyente."

Seis Se da nueva redacción a los párrafos primero y segundo de la letra g) del apartado 2 del artículo 20, que quedan redactados en los siguientes términos:

"g) En las transmisiones de participaciones en el capital social de entidades cuyos títulos no se negocien en un mercado secundario oficial, la base imponible será la que se derive del valor del patrimonio neto que corresponda a las participaciones transmitidas resultante del balance correspondiente al último ejercicio cerrado con anterioridad a la fecha de realización de la operación.

Bat. 5. artikuluari c) letra berria gehitzen zaio b) letraren atzean, eta oraingo c), d) eta e) letrak hurrenez hurren d), e) eta f) bihurtzen dira. Hona testua:

"c) Uko egiteko oinordetza-itunak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. zenbakiko lehen tarteak araututakoak.

Hala ere, oinordetza-eskubideen zati bati uko egiteko itun baten ondorioz uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea kasu batean bakarrik hartuko da oinordetza-titulutzat: ondasun eta eskubideen esleipen hori xedapen zabalago baten parte bada, non, gutxienez, beste elementu bat egon behar den jarauntsle-izendapenari lotuta, tresna itundu batean, beste ondare-elementu batzuei dagokienez. Beste kasu guztietan doako eta *inter vivos* negozio juridikotzat hartuko da.

Oinordetza-eskubide guztiei uko egiteko oinordetza-itunetan, izendatzailea hil ondoren uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea doako eta *inter vivos* negozio juridikotzat hartuko da, hurrengo 6. artikuluan ezarritakoarekin bat, ezertan eragotzi gabe oinordetza legokiekien tributazioa.

Bi. 6. artikuluari f) letra gehitzen zaio. Hona testua:

"f) Uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hirugarren baten jarauntsiko oinordetza-eskubideak xedatzearen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. zenbakiko bigarren tarteak ezarritakoarekin bat."

Hiru. Aldatu egiten da 17. artikuluko 1. zenbakiko hirugarren paragrafoaren testua. Honela idatzita geratzen da:

"Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunen kasuan eta foru arau honen 5. artikuluan definitzen diren uko egiteko oinordetza-itunen kasuan, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, hain zuzen ere eskualdaketa egiten denean."

Lau. Aldatu egiten da 17. artikuluko 2. zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

"2. *Inter vivos* egiten diren doako eskuraketetan, kontratua gertatu edo egiten den egunean bertan sortuko da zerga.

Foru arau honen 5. artikuluan ezarritako salbuespenen eta 6. artikuluko f) letran xedatutakoaren ondorioz *inter vivos* negozio juridikotzat jotzen diren ondasun- eta eskubide-eskuraketetan, eskualdatzea gertatzen den egunean sortuko da zerga."

Bost. 17. artikuluari beste 3. zenbaki bat gehitzen zaio, eta oraingo 3. eta 4. zenbakiak 4. eta 5. zenbaki bihurtzen dira. Hona 3. zenbaki berriaren testua:

"3. Izendatzailea bizirik dagoela izendatutakoaren oinordetza-eskubideak, *inter vivos* edo *mortis causa* egintzen bidez, doan xedatzen direnean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 106. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, zerga ez da sortuko izendatzailea hiltzen den egunera arte."

Sei. Aldatu egiten dira 20. artikuluko 2. zenbakiko g) letrako lehenengo eta bigarren paragrafoak. Honela idatzita geratzen dira:

"g) Beren tituluak bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzen jartzen ez dituzten erakundeek kapital sozialeko partaidetzen eskualdaketatik, eragiketa egiten den eguna baino lehen itxita azken ekitaldiko balantzetik ondorioztatzen den eta eskualdatutako partaidetzei dagokien ondare garbiaren balioak aterako da zerga-oinarria.

Salvo prueba de que el importe efectivamente satisfecho se corresponde con el que habrían convenido partes independientes en condiciones normales de mercado, el valor de transmisión no podrá ser inferior al mayor de los dos siguientes:

- a) El valor del patrimonio neto que corresponda a los valores transmitidos resultante del balance correspondiente al último ejercicio cerrado con anterioridad a la fecha de realización de la operación.
- b) El que resulte de capitalizar al tipo del 20 por 100 el promedio de los resultados de los tres ejercicios sociales cerrados con anterioridad a la fecha de realización de la operación.

Siete. Se da nueva redacción al artículo 36, que queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 36. Seguros contratados por un conyuge o miembro de pareja de hecho con cargo a la sociedad conyugal o pareja de hecho”

1. Cuando el seguro se hubiese contratado por cualquiera de los cónyuges con cargo a la sociedad de gananciales y el beneficiario fuese el cónyuge sobreviviente, ascendientes y descendientes por consanguinidad, la base imponible estará constituida por la totalidad de la cantidad percibida.
2. Lo dispuesto en el apartado anterior será igualmente de aplicación a las parejas de hecho, cuando el régimen económico patrimonial establecido por las mismas sea el de gananciales.
3. Resultará de aplicación, igualmente, lo establecido en los dos apartados anteriores de este artículo, cuando el régimen económico del matrimonio o pareja de hecho hubiera sido el de comunicación foral de bienes regulado en la Ley de Derecho Civil Vasco, y el seguro se hubiese contratado con cargo a los bienes ganados o a bienes procedentes del cónyuge o miembro de la pareja de hecho fallecido, siempre que en este último caso se hubiera producido la consolidación de la comunicación foral de bienes establecida en el artículo 132 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.”

Ocho. Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 50, que queda redactado en los siguientes términos:

- “2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los derechos de usufructo que se deriven de los poderes testatorios o testamentos por comisario regulados en la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco se regirán por las normas establecidas expresamente para ellos en el artículo 53 de esta Norma Foral.”

Nueve. Se da nueva redacción al artículo 53, que queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 53. Usufructo en las herencias bajo «alkar-poderoso» o poder testatorio.

1. En los «alkar-poderoso» o poderes testatorios en los que una persona determinada tuviera con carácter vitalicio el derecho a usufructuar los bienes de la herencia y en todo caso, en los poderes testatorios otorgados al cónyuge viudo con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco, sólo se practicará una única liquidación de este usufructo con arreglo al parentesco del usufructuario con el causante y aplicando las normas de los usufructos vitalicios.
2. En los «alkar-poderoso» o poderes testatorios en los que el usufructo se extinga al hacerse uso de dicho poder, se practicarán dos liquidaciones de este usufructo con arreglo al parentesco del usufructuario con el causante:
 - a) Una primera liquidación, al momento del fallecimiento, aplicando las normas del usufructo vitalicio.

Benetan ordaindutako zenbatekoa alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan hitzartuko zutenarekin bat datorrela frogatu ezean, eskualdaketa-balioak ezingo du honako bi hauetako handiena baino txikiagoa izan:

- a) Eragiketa egiten den eguna baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ondorioztatzen den eta eskualdatutako baloreei dagokien ondare garbiaren balioa.
- b) Eragiketa egiten den eguna baino lehen itxi diren hiru ekitaldi sozialetako emaitzen batezbestekoa 100eko 20ko tasarekin kapitalizatzen ateratzen dena.

Zazpi. Aldatu egin da 36. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

“36. artikulua. Ezkontide batek edo izatezko bikoteko kide batek ezkontza-sozietatearen edo izatezko bikotekidearen kargura kontratatutako aseguruak.

1. Asegurua bi ezkontideetako batek kontratatu badu irabazpidezko sozietatearen kargura eta onuradunak badira edo bizirik dira ezkontidea edo, bestela, odolkidetasuneko aurreko edo ondorengo ahaideak, jasotako kopuru osoa sartuko da zerga-oinarrian.
2. Aurreko atalean jasotakoa izatezko bikoteei aplikatuko zaie, izatezko bikoteak ezartzen duen ondare- eta ekonomia-arabidea irabazpidezkoa bada.
3. Era berean, artikulua honetako aurreko zenbaki bietan ezarritakoa aplikatuko da: ezkontzaren edo izatezko bikotearen arabide ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa bada –Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legean araututa dago– eta aseguru hildako ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak irabazitako ondasunen edo harengandik datozen ondasunen kargura kontratatu bada, betiere, azken kasu horretan, ondasunen foru komunikazioa finkatu egin bada, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 132. artikuluan ezarritakoarekin bat.”

Zortzi. Aldatu egin da 50. artikuluko 2. idatz-zatia. Honela idatzita geratzen da:

- “2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean araututa dauden komisario bidezko testamentuetatik eta testamentu-ahalordeetatik datozen gozamen-eskubideen kasuan foru arau honen 53. artikuluan berariaz ezarritako arauak aplikatuko dira.”

Bederatzi. Aldatu egiten da 53. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

“53. artikulua. Gozamena «alkar-poderoso»aren edo testamentu-ahalordearen menpeko jarauntsietan.

1. Baldin eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio jarauntsiko ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea indarrean jarri aurretik ezkontide alargunari egiletsitako testamentu-ahalordeetan, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.
2. Baldin eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordean gozamena azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:
 - a) Lehenengo likidazioa, kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

No obstante, si el poder testatorio tuviera un plazo determinado para su ejercicio, esta primera liquidación se practicará según las normas del usufructo temporal por el plazo máximo establecido para ejercitar dicho poder.

b) Otra nueva liquidación, al hacerse uso del «alkar-poderoso» o poder testatorio, con arreglo a las normas del usufructo temporal, por el tiempo transcurrido desde la muerte del causante, teniendo la consideración de ingreso a cuenta lo pagado por la anterior, devolviéndose la diferencia al usufructuario si resultase a su favor.

La liquidación a que se refiere esta letra b) deberá practicarse al tiempo de realizarse la de los herederos, que resulten serlo por el ejercicio del «alkar-poderoso» o poder testatorio, o por las demás causas de extinción del mismo, tomando en consideración el valor de los bienes en el momento del fallecimiento del causante.

3. Para el cálculo de los usufructos a los que se refiere este artículo se estará a las normas establecidas para el usufructo vitalicio y el usufructo temporal en el artículo 22 de esta Norma Foral."

Diez. Se da nueva redacción a los apartados 1 y 2 del artículo 54, que quedan redactados en los siguientes términos:

"1. En el caso de que el comisario, cónyuge viudo o pareja de hecho, hiciera uso del poder adjudicando un bien concreto de la comunidad posconyugal, consecuencia de la consolidación del régimen económico matrimonial de la comunidad foral de bienes producida por el fallecimiento del causante, o un bien común de la sociedad de gananciales, a favor de un descendiente común del comisario y del causante, sin proceder a la partición y liquidación de la herencia, se liquidará como donación por la mitad correspondiente al cónyuge viudo o a la pareja de hecho y como sucesión por la otra mitad correspondiente al causante.

En caso de incumplimiento de lo dispuesto en el artículo 142 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, del Derecho Civil Vasco, la disposición o adjudicación de los bienes mencionados en dicho artículo al cónyuge o pareja de hecho tributará por la mitad al tipo impositivo previsto en la letra a) del artículo 47 de esta Norma Foral.

2. En las sucesiones que se defieran bajo poder testatorio, se deberá proceder a realizar las siguientes liquidaciones, en su caso: una, inmediata a la muerte del causante, sobre el importe de la herencia no afectado por el poder, y las que correspondan a los sucesivos ejercicios de poder con carácter irrevocable o las adquisiciones derivadas de la extinción de dicho poder por cualquier otra causa."

Once. Se añade un nuevo artículo 54 bis a continuación del artículo 54, con el siguiente contenido:

"Artículo 54 bis. Disposición de derechos sucesorios en Derecho Civil Vasco.

1. Las adquisiciones de bienes y derechos como consecuencia de las disposiciones de derechos reguladas en el artículo 106 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco tributarán con arreglo al grado de parentesco que medie entre el instituyente y los descendientes del instituido a favor de los que se hubiera dispuesto.

2. La adquisición de bienes y derechos por el beneficiado por la renuncia como consecuencia de la disposición de los derechos sucesorios pertenecientes a la herencia de un tercero, de acuerdo con lo establecido en el segundo inciso del apartado 2 del artículo 100 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, tributará al fallecimiento de ese tercero, con arreglo al parentesco entre el causante y el beneficiado por la disposición, descontándose, en su caso, el valor de los bienes y derechos entregados al renunciante."

Doce. Se da nueva redacción a los apartados 1 y 3 del artículo 55, que quedan redactados en los siguientes términos:

Testamentu-ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, ordea, lehenengo likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauekin bat egingo da, ahalorde hori erabiltzeko ezarrita dagoen gehieneko epearen arabera.

b) Beste likidazio bat, «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Aurreko likidazioagatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Honako b) letra honetan aipatutako likidazioa eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordea baliatzeagatik edo bera azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira, eta kontuan hartuko da kausatzailea hiltzean ondasunek zuten balioa.

3. Artikulu honetan aipatutako gozamenak kalkulatzeko, foru arau honen 22. artikuluan biziarteko gozamenari eta aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira."

Hamar. Aldatu egiten dira 54. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak. Honela idatzita geratzen dira:

"1. Baldin eta komisarioak edo kausatzailearen ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunak testamentu-ahalordea erabiltzen badu eta horren bidez ezkontza osteko ondasun-erkidegoaren ondasun jakin bat —kausatzailearen heriotzak ondasun-erkidego foralaren ezkontzaren araubide ekonomikoan eragindako sendotzearen ondorio dena— edo irabazpidezko sozietatearen ondasun jakin bat komisarioaren eta kausatzailearen ondorengo komun bati adjudikatzen badio, baina jarauntsia banatu eta likidatu gabe, bada, orduan, ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunaren erdia dohaintza gisa likidatuko da eta beste erdia, kausatzailearena, oinordetza gisa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 142. artikulua betetzen ez bada, artikuluko horretan aipatzen diren ondasunak ezkontideari edo izatezko bikoteko kideari adjudikatzeak foru-arau honetako 47. artikuluko a) letran ezarritako zerga-tasaren arabera tributatu du.

2. Testamentu-ahalordearen bidezko oinordetzetan, honako likidazio hauek egin beharko dira, hala behar denean: bat kausatzailea hil eta berehala, ahalordeak ez ukituriko jarauntsiaren zenbatekoaz, eta ahalordearen oinordetza-jardun ezeztazinei edo beste edozein arrazoia dela bide ahalorde hori azkentzearen ondorioz eratorritako eskuratzeei dagozkienak".

Hamaika. 54 bis artikulua gehitu da 54. artikuluen ondoren, honako hau dioena:

"54 bis artikulua. Oinordetza-eskubideen xedapena Euskal Zuzenbide Zibilean.

1. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 106. artikuluan araututako eskubideen xedapenen ondoriozko eskubide eta ondasunen eskuraketak izendatzailearen eta izendatutakoaren ondorengo arteko ahaidetasun-mailaren arabera ordainduko dira.

2. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. idatz-zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorriz, hirugarren baten jarauntsiaren oinordetza-eskubideak xedatzearen ondoriozko uko-egitearen onuradunaren eskubide eta ondasunen eskuratzeari hirugarren hori hiltzen denean ordainduko da, xedapenaren onuradunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera; halaber, hala badagokio, uko-egileari emandako eskubide eta ondasunen balioa kenduko da".

Hamabi. Aldatu egiten dira 55. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiak. Honela idatzita geratzen dira:

"1. En la herencia de bienes reservables, con arreglo al artículo 811 del Código Civil y al artículo 118 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, del Derecho Civil Vasco, satisfará el Impuesto el reservista en concepto de usufructuario, pero si por fallecimiento de todos los parientes en cuyo favor se halle establecida la reserva o por su renuncia se extinguiere ésta, vendrá obligado el reservista a satisfacer el Impuesto correspondiente a la nuda propiedad."

"3. En la reserva a que se refieren los artículos 968, 969, 979 y 980 del Código Civil y el artículo 120 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, del Derecho Civil Vasco, se liquidará el Impuesto al reservista por el pleno dominio de los bienes, sin perjuicio del derecho a la devolución de lo satisfecho por la parte correspondiente a la nuda propiedad de los bienes a que afecte cuando se acredite la transmisión total de los mismos al reservatario."

Trece. Se da nueva redacción al apartado 1 del artículo 57, que queda redactado en los siguientes términos:

"1. En los casos en que se produzca la reversión de los bienes a favor del instituyente, que hayan sido objeto de transmisión por medio de pacto sucesorio con carga de alimentos, se procederá a practicar una nueva liquidación con arreglo a las normas de los usufructos temporales establecidas en el artículo 22 de esta Norma Foral, con devolución al contribuyente del exceso pagado, en su caso, respecto a la liquidación inicialmente practicada por la transmisión de los bienes objeto de reversión"

Catorce. Se da nueva redacción al artículo 59, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 59. Pago de la legítima viudal con entrega de bienes en pleno dominio.

Quando en virtud de lo dispuesto en los artículos 839 y 840 del Código Civil o en el artículo 53 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, del Derecho Civil Vasco se hiciese pago al cónyuge o pareja de hecho sobreviviente, de su haber legítimo en forma o concepto distinto del usufructo, se girará una liquidación sobre la cantidad coincidente del valor comprobado de los bienes o derechos adjudicados y el asignado al usufructo, según las reglas del artículo 22 de esta Norma Foral, sin que haya lugar, en consecuencia, a practicar liquidación alguna por la nuda propiedad a los herederos ni, en su día, por la extinción del usufructo. No obstante, cuando el valor de lo adjudicado en forma distinta del usufructo fuese menor o mayor de lo que correspondería al cónyuge o pareja de hecho sobreviviente, el exceso o diferencia se liquidará como exceso de adjudicación a cargo del heredero o herederos favorecidos en el primer caso, o del cónyuge o pareja de hecho sobreviviente en el segundo."

Quince. Se añade un nuevo párrafo al final del apartado 1 del artículo 60, con el siguiente contenido:

"Lo dispuesto en este apartado no será aplicable a los pactos de renuncia a los que se refiere la letra c) del artículo 5 de esta Norma Foral."

Dieciséis. Se añade un segundo párrafo al apartado 2 del artículo 60, con el siguiente contenido:

"No obstante, en los supuestos de pactos de renuncia a la herencia de un tercero de acuerdo con lo establecido en el segundo inciso del apartado 2 del artículo 100 de la Ley 5/2015 de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, no se exigirá el impuesto al renunciante, que tributó, en su caso, de acuerdo con lo establecido en la letra f) del artículo 6 de la presente Norma Foral, sin perjuicio de la tributación que corresponda al beneficiario de la renuncia."

Dieciséiete. Se da nueva redacción al artículo 63, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 63. Acumulación de las donaciones y demás transmisiones lucrativas equiparables y de adquisiciones mortis causa.

"1. Erreserbapeko ondasunen jarauntsian, Kode Zibileko 811. artikulua eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 118. artikulua arabera, erreserbagileak ordainduko du zerga, gozamenen gisa, baina erreserba beren alde erata duten ahaide guztiak hiltzen badira edo ahaideok erreserbari uko egiteagatik erreserba iraungi egiten bada, jabetza soilari dagokion zerga ordaindu beharko du erreserbagileak".

"3. Kode Zibileko 968, 969, 979 eta 980. artikuluetan eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 120. artikuluan aipatzen diren erreserben kasuan, erreserbagileari likidatuko zaio zerga, ondasunen jabari osoa dela eta; nolahi ere, erreserbak eragindako ondasunen jabetza soilari dagokion zatiagatik ordaindutakoaren itzulketa jasotzeko eskubidea izango du, egiaztatzen badu ondasunok erreserba-hartzaileari eskualdatu dizkiola".

Hamahiru. Aldatu egin da 57. artikuluko 1. idatz-zatia. Honela idatzita geratzen da:

"1. Mantenu-beharra duen oinordetza-itun baten bidez eskualdatu diren ondasunak eratzailari itzultzen bazaizkio, beste likidazio bat egingo da, foru-arau honetako 22. artikuluan aldi baterako gozamenei buruz ezarritako arauak betez, eta itzuli diren ondasunak eskualdatu zirenean egindako likidazioaren aldean gaindikikin badago, berriz, gaindikin hori itzuli egingo zaio zergadunari".

Hamalau. Aldatu egiten da 59. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

"59. artikulua. Alargunaren senipartea ondasunak jabari osoan emanez ordaintzea.

Kode Zibileko 839. eta 840. artikuluetan edo Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 53. artikuluan ezarritakoari jarraiki bizirik dirauen ezkontideari edo izatezko bikoteko kideari bere senipartedun hartzekoa gozamena ez den eran edo kontzeptuan ordaintzen bazaio, likidazioa egingo da adjudikatutako ondasunen balio egiaztatuen eta gozamenari esleitutakoaren baterako kopuruaren gainean, foru-arau honetako 22. artikuluko erregelen arabera. Horren ondorioz, jaraunslerei ez zaie likidaziorik egingo jabetza soilarengatik, ezta gozamena iraungitzeagatik ere —halakorik gertatzen den egunean—. Hala ere, gozamena ez den eran adjudikatutakoaren balioa handiagoa edo txikiagoa bada ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunari dagokiona baino, gaindikina edo diferentzia adjudikazio-gaindikin gisa likidatuko da: lehenengo kasuan, jaraunslen onuradunaren edo onuradunen kontura; bigarrenean, ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunaren kontura."

Hamabost. 60. artikuluko 1. idatz-zatiari paragrafo bat gehitu zaio amaieran; honakoa:

"Idatz-zati honetan xedatutakoa ez da aplikatuko foru-arau honen 5. artikuluko c) puntuak aipatzen duen uko-egiteen itunetan".

Hamasei. 60. artikuluko 2. idatz-zatiari bigarren paragrafo bat gehitu zaio amaieran; honakoa:

"Hala ere, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. idatz-zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorritik, hirugarren baten jarauntsiari uko egiteko itunak badaude, ez zaio zerga eskatuko foru-arau honen 6. artikuluko f) letraren arabera tributatu zuen uko-egileari, hala bazegokion."

Hamazazpi. Aldatu egiten da 63. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

"63. artikulua. Dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako dohaineko eskualdaketa eta mortis causa eskuraketak metatzea.

Las donaciones y demás transmisiones lucrativas equiparables a que se refiere el artículo anterior y las transmisiones sucesorias por cualquier título que se cause por el donante a favor del donatario, salvo que se trate de adquisiciones «mortis causa» de los bienes declarados exentos en el artículo 12 de esta Norma Foral, se considerarán a los efectos de determinar la cuota tributaria como una sola adquisición siempre que el plazo que medie entre ellas no exceda de cuatro años. La cuota tributaria se obtendrá en función de la suma de todas las bases imponibles. Las cuotas satisfechas con anterioridad por las adquisiciones acumuladas serán deducibles de lo ingresado, sin que proceda devolución de cuotas por este motivo.

A los efectos del párrafo anterior, la acumulación se efectuará sumando el valor de los bienes o derechos adquiridos en los cuatro años anteriores a la fecha de la última transmisión.

Si las donaciones o transmisiones lucrativas de bienes comunes pertenecientes a la sociedad conyugal, mencionadas en el artículo anterior, se hubieran realizado por ambos cónyuges, la acumulación afectará sólo a la parte proporcional de su valor imputable al causante, con deducción de la cuota imputable al causante que corresponda a esa donación o transmisión lucrativa equiparable.

Las adquisiciones acumuladas se computarán por el valor comprobado en su día para las mismas, aunque hubiese variado en el momento de la acumulación.

Lo previsto en este artículo será aplicable a las parejas de hecho."

Dieciocho. Se añade un último párrafo al apartado 3 del artículo 73, con el siguiente contenido:

"Asimismo los Notarios, en el mismo plazo establecido en el párrafo anterior, estarán obligados a remitir a la Diputación Foral una relación de todos los documentos autorizados por ellos en relación con los actos de disposición del comisario de bienes de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio a que se refiere el artículo 43 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, del Derecho Civil Vasco, que no impliquen el devengo de este Impuesto."

Diecinueve. Se da nueva redacción al segundo párrafo del apartado 1 del artículo 74, que queda redactado en los siguientes términos:

"El comisario deberá comunicar a la Administración tributaria las alteraciones producidas en el inventario de los elementos patrimoniales que formen parte de la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio, siempre que las correspondientes alteraciones patrimoniales no impliquen el devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. La citada comunicación deberá presentarse con la forma, plazo y documentación que reglamentariamente se determine."

Veinte. Se introduce una nueva Disposición Adicional Tercera, con el siguiente contenido:

"Disposición Adicional Tercera. Régimen Transitorio de las sucesiones pendientes del ejercicio de un poder testatorio y de los pactos sucesorios con eficacia de presente"

1. En las adquisiciones hereditarias por el cónyuge o pareja de hecho, descendientes o ascendientes en línea recta por consanguinidad o adoptantes o adoptados, que hayan sido consecuencia del ejercicio parcial de alkar poderosos o poderes testatorios, que no se hubieran ejercitado totalmente o no se hubieran extinguido a 1 de enero de 2014 o en el plazo de 6 meses desde dicha fecha, se procederá a acumular todas las adquisiciones que concurran en un mismo sucesor respecto del mismo causante, considerándose como una sola adquisición a los efectos de aplicar una sola vez las reducciones de entre las que se regulan en esta Norma Foral. El valor de los bienes y derechos correspondientes a dichas adquisiciones será el que tuvieron en el momento de su devengo.

2. En ningún caso, se procederá a la acumulación a los efectos de incrementar las bases imponibles correspondientes a posteriores devengos en relación al mismo causante y sucesor.

Aurreko artikuluan aipatutako dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako dohaineko eskualdaketak eta dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearen alde egindako edozein titulu dela bide egindako oinordetza-eskualdaketak, salbu eta foru-arau honetako 12. artikuluan salbuetsitatz jotzen diren ondasunen «mortis causa» eskuraketak badira, eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga-kuota zehazteko orduan, betiere baldin eta horien arteko epea ez bada lau urte baino luzeagoa. Zerga-kuota zerga-oinarri guztiak batuz lortuko da. Metatutako eskuraketengatik aurrez ordaindutako kuotak ordaindutakoaren zenbatekotik kengarriak izango dira, baina ez da inoiz kuotarik itzuliko.

A los efectos del párrafo anterior, la acumulación se efectuará sumando el valor de los bienes o derechos adquiridos en los cuatro años anteriores a la fecha de la última transmisión.

Aurreko artikuluan aipatutako dohaintzak edo eskualdaketak ezkontide biek ezkontza-sozietatearen ondasun komunak erabiliz egin badituzte, metaketak bakarrik eragingo dio kausatzaileari egotzi ahal zaion balioaren parte proportzionalari, eta kengarria izango da dohaintzari edo parekagarria den gainerako dohaineko eskualdaketa horri dagokion kuotaren zatia.

Metatutako eskuraketak egin ziren egunean egiaztatu zitzaizen balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

Artikulu honetan ezarritakoa berdin aplikatuko zaie izatezko bikoteei ere".

Hamazortzi. 73. artikuluko 3. idatz-zatiari azken paragrafo bat gehitu zaio amaieran; honakoa:

"Era berean, notarioek, aurreko lerroaldean ezarritako epealdi berean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluko aipatutako testamentu-ahalordearen jardunaren menpeko jarauntsiaren ondasunen komisarioaren xedatze-egintzei buruz beraiek baimendutako dokumentu guztien zerrenda bat igorri beharko diote Foru Aldundiari."

Hemeretzi. Aldatu egin da 74. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren paragrafoaren testua; honela idatzita geratu da:

"Komisarioak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dagoen jarauntsiko ondare-elementuen inbentarioan gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare-aldaketa horiek ez badute Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena eragiten. Jakinarazpena arauz finkatutako moduan, epean eta dokumentazioarekin aurkeztu beharko da".

Hogei. Hirugarren xedapen gehigarria gehitu da, honakoa dioena:

